

artikulu nabarmenak
artículos destacados



ekaina



Fracaso y abandono escolar temprano en España.

Eskola-porrotari dagokionez, Espainian dagoen egoera aztertzen da artikulu honetan. Porrota eta eskola-uzte goiztiarra neurtzeko dauden askotariko kontzepzioak eta moduak azaltzen dira bertan, bai eta zein diren eskola uzten duten ikasleen ibilbide nagusiak edo porrotari eta, beranduago, eskola-uzte goiztiarrari lotu dakizkiokeen faktoreak ere. Era berean, fenomeno horrek ekar ditzakeen ondorioak ere aipatzen ditu, eta horri aurre egiteko hainbat neurri proposatu. Grafikoak, estatistika-taulak eta bibliografia osagarria ditu.

Cauces: Cuadernos del Consejo Económico y Social, 47. zk., 2011ko api/mai/eka., 46-83 or.



Thornberg, Ropert; Knutsen, Sven. Teenagers' Explanations of Bullying

Nerabeek eskola-jazarpena nola azaltzen duten aztertzea da ikerlan honen helburua, bai eta generoaren arabera eta jazarpen-esperientziak jasan izanaren arabera alderik dagoen konprobatzea ere. 9. mailako 176 suediar ikaslek (15-16 urtekoak) erantzun dioten galde-sortari. Datuak aztertzeko, metodologia mistoa erabili da (metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak). Emaitzek diotenez, gazteek, jazarpena azaltzeko, hein handiagoan jotzen dute arrazoi individualistetara (jazarle eta biktima izaera), bestelakoetara baino, adibidez, parekoen taldera, eskola-girora edo giza naturara edo jendartera. Neskek joera handiagoa dute jazarpenaren arrazoiak jazarleari egotzeko, eta ez biktimari. Bestetik, jazarletzat jotakoek joera handiagoa dute jazarpenaren arrazoi biktimari leporatzeko, eta askoz ere neurri txikiagoan jazarleari, biktimekin, lekukoekin eta biktimekin / jazarleekin alderatuta.

Child & Youth Care Forum, 40. lib., 3. zk., 2011ko ekaina, 177-192 or.



Pons, Javier; Huelga, Sofía. Factores asociados al consumo juvenil de alcohol: una revisión desde una perspectiva psicosocial y ecológica.

Lan honetan, nerabeen alkohol-kontsumoan barne hartutako faktore psikosozialak berrikusten dira, ikuspuntu ekologikotik. Ikuspuntu horren baitan, psikologia-, harreman-, gizarte- eta kultura-faktoreak sartzen dira. Alkohol-kontsumoa gazteen kulturaren zatietako bat den aldetik aztertzen da, azalpen patologikoak edo moralistak alde batera utzita. Artikuluaren ildoari helduta, nerabeak alkohol-kontsumoa konplexutasuna bereizgarri duen gizartera egokitzeko bitartekoetako bat da alkohol-kontsumoa.

Intervención psicosocial = Psychosocial intervention, 20. lib., 1. zk., 2011ko apirila